

Nekazariantzako aldizkari bat sortu da

Oiartzunen: «Hagina»


F. I.

NEKAZARIANTZAKO aldizkari berri bat sortu da, «Hagina» izena duena. Pribatua da, Oiartzungo bi lagunek sortua: Nekane García (zuzendaria) eta Isidro Ezponda (zuzendari komertziala). Urtean lau ale kaleratuko dira, urtaroak kontuan hartuz.

Aldizkaria ez da kiosko eta dendetara iritsiko, bakar-bakarrrik harpidetza bidez banatuko baita. Helburua zera da, publizitateari buruz bizi ahal izatea. «Hagina» eskuratu nahi dutenek telefono honetara deitu behar dute: 490581.

Oraingoz, ale gehienak GILBE eta FRUITEL erakundee-tako bazkideen artean banatzen dira, bi taldeokin elkarlanean sortu baita aldizkaria. GILBEk lore eta baratzazaleak biltzen ditu; FRUITELek, frutazaleak.

Nekazaritzako profesionalei begira egindako produktua da. Artikulu gehienak gaztelaniaz datoz, beste batzuk euskaraz. Aipatutako bi erakundeei buruzko informazioak sei orrialde hartzen ditu. Hona beste artikuluetako batzuk: «Costes de producción en el cultivo del tomate»; «Normativa europea: regularización y normalización del pro-



Lehen alea.

ducto agrícola»; «Montes bizitegiak: baratzarako landare txikietan espezialistak».

Beste artikululu luze bat «Euskal Baserri» markari buruz idatzi dute. Iazko urrian aurkeztu zuen Jaurilaritzak marka hau, kontsumitzaileari adieraziko dio nola barazkia edo fruta Euskal Herrian produzitua izan den.

Aldizkariko idazle laguntzaileen artean, honako hauek: Domingo Merino (Oiartzungo OCA), Javier Telleria (Hazia 2000), J.M. Santos (SADM), Paola Sangalli (Bioforesta), Nathalie Marino eta J.C. Alberdi (Behemendi).